



Doako harpidetza:

Papera: Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia kalea, 1 - 01010 VITORIA -GASTEIZ

Tel.: 945 01 69 44 | berripapera@ej-gv.es

Bertsio digitala: www.euskara.euskadi.net/berripapera

SAKONEAN

01|02

BERRIAK

03

MOTZEAN

04

Euskara sustatzeko plan berria

Euskararen erabilera areagotzea helburu nagusi duen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) gizarteratzeko prozesuari hasiera eman dio Eusko Jaurlaritzak. Plan honek Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) osatu eta datozen hamar urteotako hizkuntza plangintza gidatu nahi du. Hizkuntza politikaren inguruan 2008tik 2009ra izandako Euskara 21 gogoeta-prozesuaren ondorioetako bat izan zen EBPN berraztertzearen beharra. Hizkuntza plangintza egungo egoerara egokitu behar zen, azken urteotan gizartearen aldaketei eta hizkuntza alorreko behar berriei hobeto erantzuteko. /02



Abian da plan berria gizarteratzeko prozesua

EUSKO JAURLARITZAK ABIAN JARRI DU EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (ESEP) GIZARTERATZEKO PROZESUA. PLAN BERRIAK ORAINDIK INDARREAN DAGOEN EBPN EGUNERATU ETA OSATUKO DU. EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN ESKUTIK EUSKO JAURLARITZAREN HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK 2011. URTEAN ABIAN JARRITAKO EKIMENA AURRERA DOA, HORTAZ.

L

urdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordeak adierazi duenez, "hizkuntza politikaren eremuan Gobernu honek hasieratik hartu zuen konpromisoetako bat euskararen normalizazioan aurrera egiteko plan berri bat prestatzea zen. Izan ere, Euskara Biziberritze-ko Plan Nagusia (EBPN), 1999an onartua eta oso tresna baliotsua izan dena, gaur egungo premia berrietara egokitu behar genuen. Euskararen Aholku Batzordeak urte bat baino gehiago lanean eman eta gero, haren egitekoaren emaitza aurkez dezakegu orain jendearen aurrean".

ESEPen helburu nagusia euskararen erabilera sendotu eta areagotzea da, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Aholku Batzordearen elkarlanetik sortutako proposamena funtsezko aurrerapausoa izango da euskararen normalizazioan. "Adostu dugun testua aproposa da erabat, eguneroko errealitatera egokiturik baitago. Hiru helburu estrategiko batzen ditu: euskararen jabetzea, erabilera eta elikadura, hau da, hizkuntza aberastasuna handitzeko behar

“

ESEPen

helburu nagusia euskararen erabilera sendotu eta areagotzea da, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Aholku Batzordearen elkarlanetik sortutako proposamena funtsezko aurrerapausoa izango da euskararen normalizazioan.

diren izapideak. Horrek egunerokotasuneko esparru guztiak ukitzen ditu: irakaskuntza, administrazioa, lan mundua, hedabideak, kirola eta aisia, kultura, publizitatea... Teknologia berriei ere garrantzi berezia eman zaie", nabarmendu du Auzmendik. Hiru helburu estrategiko horietan aurrera egiteko lagunduko duten bi zehar-lerro ere identifikatu dira: euskararen aldeko motibazioa, batetik, eta euskararen zabal-kundea, bestetik. Sentsibilizazioan oinarritzen dira ESEPen bildutako hainbat neurri, eta euskararen eta euskarazko kulturaren proiektzioan, hala kanpokoan (Etxepare Institutuaren bitartez nagusiki) nola barrukoan, ahalegin berezia egiteko gidalerro batzuk proposatzen dira.

Plan berriak bere bilakaeraren eta helburuen betetze-mailaren neurketarako sistema bat aurreikusi zuen diseinatzen hasi zen une beretik. Ekintza-lerro nagusi bakoitza adierazleetan islatuko da, aldiro-aldiro plana bera ebaluatua izan dadin bere osotasunean.

ESEPen testua behin-behinekoa da, eta orain plan hori gizarte osoari aurkeztu zaio, ekarpenak eta iradokizunak egiteko. Izan ere,



ESEP adostasun zabalean oinarritutako prozesu irekiaren emaitza izango da. Hala, aurkezpen sektorialak egin dira hedabideetako eta euskaltegi-tako ordezkarien aurrean, besteak beste. Bide nagusia, dena den, Euskara 21 bloga izan da (<http://blog.euskara21.euskadi.net/>). Ekainaren 24ra arte, nahi izan duen orok ekarpen eta proposamenak egiteko aukera izan du blog horretan. Aipatzekoa da, halaber, ESEP planaren logotipoa aukeratzeko lehiaketa bat martxan jarri dela (blog berean), eta irabazleak 1.500 euro jasoko duela.

Behin epe hori agortuta, herritarrek egindako proposamen guztiak batu eta Euskararen Aholku Batzordean aztertuko dira. Ondo bidean, plana uztailean onartuko da; lehendabizi, Euskararen Aholku Batzordean, eta gero, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluan. Geroago plana Legebiltzarrerara eramango da, han izan dadin eztabaidatua eta, hala adostuz gero, onartua. Asmoa da 2013 hasieran ESEP indarrean sartu eta garatzen hastea. Hortik aurrera hamar urteko plangintza sendo bezain garrantzitsua gauzatu beharko da.

‘Language Rich Europe’ proiektua EAEn

Ekainaren 12an, *Language Rich Europe* (LRE) izeneko Europako ikerketa proiektuaren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion emaitzak aurkeztu ziren. Azterlanaren helburua eleaniztasunaren presentzia neurtzea izan da, eta horretarako hainbat esparru arakatu dira, hezkuntzan hasi eta zerbitzu publiko orokor eta komunikabideetarako. Europako 18 lurraldetan egin da 2011n abiarazitako lana, British Council erakundearen eta Tilburg (Herbehereak) Unibertsitateko bi adituren zuzendaritzapean. EAEn kasuan HPS aritu da British Council-ekin elkarlanean. Erakunde horietako ordezkariak, hain zuzen, hartu dute parte Bilbon egindako aurkezpenean.

Gainerako tokietan bezala, EAEn hizkuntzen presentzia eta errotze-maila aztertu da, hala alor publikoan nola jardun pribatuko zenbait sektoretan. Ikerketa ez da mugatu elebitasunaren errealitate eta ezaugarrietara; kontuan izan ditu, euskara eta gaztelania ez ezik, gurean neurri batean zein bestean erabiltzen diren

“

AZTERLANAREN HELBURUA

eleaniztasunaren presentzia neurtzea izan da, eta horretarako hainbat esparru arakatu dira, hezkuntzan hasi eta zerbitzu publiko orokor eta komunikabideetarako.



beste hizkuntza batzuk ere. Zerrenda horretan ageri dira, esaterako, ingelesa, frantsesa, alemana, italiarra, errusiera, arabiera eta beste hizkuntza batzuk.

Ikerketaren emaitza orokorrak eta taula konparatiboak (lurraldeen artekoak) aurrerago ezagutaraziko dira, Londresen egingo den aurkezpen batean. LRE azterlana aitzinda-

ria izan da European, eleaniztasuna ikuspegi zabal batetik ikertzeko aukera eman duelako, alde batetik, eta Europako 18 herrialdetan aldi berean eta irizpide berak erabiliz garatu delako, bestetik. Emaitzetan hizkuntza arloko politiken eta praktiken gaur egungo joerak jaso dira eta, horiekien batera, eredugarri izan daitezkeen jardunbideak ere bai.

HPS-REN ETA EUSKARABIDEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Patxi López eta Miguel Sanz lehendakariak 2009an Iruñean izenpetu zuten protokoloari lotuz, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Nafarroako Gobernuak Euskarabideak lankidetzaren hitzarmena adostu dute euskara elkarrekin bultzatu eta sustatzeko. Mugarri historiko honek bederatzi atal dauzka eta euskara mintzatzen den bi autonomia erkidegoen arteko elkarlana bermatuko du, gure hizkuntzarentzat berebiziko garrantzia duten kontuetan.

Helduen euskararen irakaskuntzari dagokionez, curriculum garapena, irakasleen prestakuntza eta materialen hedapena jasotzen ditu hitzarmenak. Horrez gain, hizkuntza gaitasuna baloratu eta bi erkidegoetan herritarrek eskuratutako euskara-agiriak bi lurralde-esparruetan homologatzeko aukera gauzatu du, betiere Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Marko Bateratua oinarri harturik. Ikerketa eta

mapa soziolinguistikoak ere hizpide dira, bi gobernuen arteko informazio-trukaketa ziurtatzen baita. Elkarrekin Espainiako eta Europar Batasuneko lege eta arauak itzultzeko eta zinpeko itzultzaileak eta interpreteak habilitatzeko konpromisoa da beste puntu garrantzitsu bat.

Itzulpen memorien banku publikoa sortu eta mantentzeko eta terminologia arloko elkarlana sustatzeko neurriak jasotzen dira beste atal batean. Horrez gain, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak euskaraz erabiltzeko erronkan jarri da arreta, eta, horrekin batera, euskara nazioartean hedatzeko programetan, bereziki atzerriko unibertsitateetako irakurle programetan. Azkenik, euskarazko kulturaren sustapena ere aipatzen da, ekinaldien eta materialen hedapenari eta bi administrazioek antolatutako ekitaldiei dagokienez. Hitzarmenak ez du epe-mugarik eta urtero berrituko da.

Euskalterm Terminologia Banku Publikoaren bertsio berria

Orain urtebete luze, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskaltermen bertsio berria jarri zuen abian. Aurreko bertsioarekiko alde nabarmenak zituen, ez bakarrik diseinuari zegokionez, baizik eta funtzionalitateei zegokienez ere bai.

Berrikuntzarik garrantzitsuenak izan zen Terminologia Batzordeak onartutako hiztegiak Bankuan integrazioa eta hiztegi horietako termino guztiei ponderazio-marka jartzea. Horrela, erabiltzaileak argi eta garbi ikus dezake zeintzuk diren Terminologia Batzordeak onartzen dituen (3 ponderazio-marka) eta gomendatzen dituen (4 ponderazio-marka) terminoak. Iru-diak sartu eta erakusteko aukera ere eskaintzen du bertsio berriak.

Bada, orain erabat beharrezkoa den beste berrikuntza bat egin zaio Euskaltermi, hain zuzen ere, bilaketa egiteko orduan erabileremua zehazteko aukera:



Horrez gain, bilaketaren emaitza aurkezteko era ere aldatuta dago, modu biziagoan eta malguagoan eskainita. Hobekuntzak egiten jarraitzeko, oso garrantzitsua izango da erabiltzaileen iritziak eta ekarpenak jasotzea.

BUSTI ZAITEZ EUSKARAZ, UDAKO BARNETEGIETAN!



Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, HABEk eta euskaltegiek udako barnetegietan matrikulatzeko deialdia egin dute beste behin.

AEK-uda barnetegiak, Ika, Bilbo Zaharra, Gabriel Aresti, Maizpide, Ulibarri eta Zornotzako barnetegiak. Horiek guztiek eman dute barnetegietan ikasteko aukera uztailetik aurrera, norberak nahi duen ingurunean, norberari ondoen etortzen zaizkion egunetan, egonaldi laburrago edo luzeagoetan, hainbat programa eta mailatan.

Izan ere, udako barnetegiak euskara ikasi nahi duenaren beharretara egokitzen dira. Euskaraz praktikatzeko sortu ziren, bereziki ikasurtean euskaltegietan euskara ikasten ari ziren ikasle horiei begira. Udako barnetegiak helburu bera izaten jarraitzen dute, euskara ikasi nahi duten askok ez baitute euskara erabili eta praktikatzeko aukerarik beraien ingurune hurbilean. Udako barnetegiak, ordea, 24 orduz euskaraz biziitzeko aukera ematen diete ikasle horiei.

1993/94 ikasurtean udako barnetegiak sortu zirenetik, ibilbide luzea egin dute eta lan izugarria egin da bertan. Lehen ikasurte hartan 3.272 ikasle hartu zuten parte, baina azken urteetan kopuru horrek behera egin du. Azken bi urteotan, esaterako, 1.430 ikasle inguru izan dira udako barnetegietan. Aurten ikasle kopuruak gora egiteko itxaropen sendoa dago.

Euskara eta Kolonbiako hizkuntza indigenak

Munduan 6.000 hizkuntzatik gora hitz egiten dira, horietatik gehienak Asian. Hego Amerikako zenbait herrialde ere hizkuntzatan oso aberatsak dira, adibidez Kolonbia. Gaztelaniaz gain, beste 68 hizkuntza hitz egiten dira herrialde horretan: 65 indigena, bi kreol eta erromania.

Kolonbiako Gobernuak legez aitortzen du hizkuntza horiei eman behar zaien babesa eta laguntza. Hori horrela, Eusko Jaurlaritzak, euskararekin hemen urteetan metatu dugun esperientzia beste batzuentzat lagungarri izan daitekeela jakinik, lehendik Kultura Ministerioarekin zegoen hitzarmena luzatzea erabaki du. Aldi berean, hizkuntzen transmisioan hezkuntzak daukan pisu eta eraginaz oharturik, Kolonbiako Hezkuntza Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak lankidetzeta-protokolo bat sinatu dute aholkularitza eta formazioa ardatz hartuta.

